



Greba orokorra Hego Euskal Herrian

## EAEko diputazio eta udaletxeia guztiak itxita egon ziren

I.M. / DONOSTIA

Euskal Autonomi Elkarteko administrazio publikoan ia erabatekoa izan zen greba, iturri sindikalen arabera. Udaletxe ia guztiak itxita egon ziren, eta hiru foru aldundietako nahiz Jaurlaritzako langileen gehiengoak greba egin zuen iturri horien arabera. Administrazioaren arabera, ordea, % 45,8koa baino ez zen izan grebaren eragina EAEko administrazio publikoan.

Nafarroako administrazio publikoan apalagoa izan zen greba eguna. Nafarroako Gobernuan % 8,71k sostengatu zuten lanuzterako deialdia gobernu iturrien arabera. Nafarroako udaletako langile ugariak greba egin zuela adierazi zuten iturri sindikalek, baina datu zehatzik eman gabe. Iruñeko Udaleko 50en bat langilek ez zuten lanik egin ELAren arabera.

EAEko udaletxeen artean, Bilboko ehunen bat langile (2.200 inguru dira guztira) izan ziren lanera joan ziren bakarrak, ELA sindikatuak adierazi zenez. Gipuzkoa eta Arabako Foru Aldundiak itxita egon ziren eta erabatekoa izan greba. Bizkaikoan gehiengoak egin zuen greba, baina Bizkaiko Diputazioko Foru Jauregia zabalik egon zen, eta eta herrialde bereko Foru Haziendan ere gutxi batzuek lan egin zuten.

## Hegoaldeko zortzi egunkarietatik lau baino ez ziren plazaratu

I.M. / DONOSTIA

Greba deialdia zela eta, Hego Euskal Herriko komunikabideek hartu zuten jarrera gorabeheratsua izan zen. Zortzi egunkarietatik lau baino ez ziren kaleratu, irri gehienek albiste laburrak baino ez zituzten eskaini, eta Euskal Telebista bi albiste ematera mugatu zen. Oro har, Bizkaia, Araba eta Gipuzkoako komunikabide gehienek greba sostengatu zuten, eta Nafarrokoek, aldiz, lana normaltasunez egin zuten.

Hego Euskal Herriko zortzi egunkarietatik lau baino ez ziren atzo plazaratu. EGUNKARIAK ezezik, 'El Diario Vasco', 'Egin' eta 'El Mundo del Pais Vasco' kazetek ere greba egin eta ez ziren kalera atera. 'Deia' eta 'El Correo Español' izan ziren Euskal Autonomi Elkartean kalera irteten ziren bakarrak, baina saltoki ia guztiak itxita egon zirela eta, ez ziren ia batera saldu. 'Deiak' Hegoalde osorako edizioa egin zuen, baina 'El Correo' Bizkaiko bakarrik kaleratu zuen. Nafarroako bi egunkariak, 'Diario

**LAKUAN GEHIENEK GREBA** Eusko Jaurlaritzaren egoitza nagusian, Lakuan alegia, 1.100 langiletik 70 baino ez ziren lanera sartu ELA sindikatuaren arabera. Jaurlaritzako iturriek, ordea, grebaren eragina txikiagoa izan zela adierazi zuten. Grebak eragin handiena izan zuen saila Hezkuntza (% 68) eta Ekonomia-Ingurugiroa (% 66) izan ziren iturri horien arabera. Beste sailetan greba deialdiaren eragina honakoa izan zen iturri ofizialek adierazi zuten: Haziendan % 54, Kulturaren % 53, Lehendakaritzan % 51, Merkataritzan % 51, Lana eta Gizarte Segurantzaren % 48, Barne Saila % 39, Industria % 38, Nekazaritzan eta Arrantzaren % 29 eta Garraioak % 12,8.

Eustat-eko % 74ek ez zuten lanik egin eta HAEeko % 67,1ek ere ez. HABEn % 22k egin zuten greba, eta Osakidetzako administrazioan % 20k, beti ere iturri ofizialen arabera.




Estatu administrazioko erakundeetan, Correoseko langileak nabarmendu ziren grebaren aldeko jarreraren: ELAK emandako berrien arabera, % 85etik gora izan ziren lanik egin ez zutenak. Telefonikan % 60k sostengatu zuten greba deialdia. EAEko epaitegietan gutxienezko zerbitzuek baino ez zuten funtzionatu, eta atzo egitekoak ziren epaitekten % 95 ezin izan zen burutu.

Navarra' eta 'Navarra Hoy', normaltasunez kaleratu ziren. 'Navarra Hoy-ek', hala ere, lau orduko lanuztea egin zuen atzo, UGT eta CCOOen deialdiari jarraiki, gaurko zenbakia ohizkoa baino murriztagoa egiteko.

Euskal Telebistak ez zuen ohizko programaziorik eskaini, eta ordu laurdeneko bi albistegi baino ez zituen eman, eguerdian bata eta gauean bestea. Euskal Autonomi Elkarteko TVEko zentruak bi albistegi eta saio grabatua eman zituen (ohizkoa baino programazio murriztagoa bezar), eta Nafarroako zentruak normaltasunez emititu zuten.

Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako irri guztiak egin zuten greba (Herri Irratia, Antena 3, SER katea, Miramar, Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Radio Vitoria...). Gehienak gutxienezko zerbitzuak eman bazituzten ere (albistegi laburrak orduero), baten batzuek zerbitzu horiek ere ez zituzten eskaini. Nafarroan, Euskadi Irratia, Antena 3 eta Euskalerria Irratia izan ezik, beste kate guztiak ohizko emanaldiak eskaini zituzten.

## Euskadiko Kutxaren Kreditu Gaztearekin.



KREDITU GAZTE PERTSONALA %13KO INTERES NOMINALAREKIN (U.T.Ba %13,8). ETA BOST URTERA ARTEKO EPEA, MOTORRA, KOTXEA, ... • ESKURATZEKO ETXEBIZITZARAKO KREDITU GAZTEA % 11,5EKO INTERES NOMINALAREKIN (U.T.BA %12,13) ETA 25 URTERA ARTEKO EPEA LEHEN ETXEBIZITZA ESKURATZEKO • LEHEN NEGOZIORAKO ETA IKASKETETARAKO KREDITUAK • (U.T.Ba KOMISORIK GABE, IREKIERAGATIKO KOMISIOA %1).

**Eta bada besterik, bihartik aurrera, zure aurrezkiek etekinik handiena emango dizute ...**

